


VILLA HIRUBIDE
D MAILA

JOSE ELOSEGI ALKATEAREN HIRIBIDEA 56



Egile ezezaguna, 1910 inguruan

Deskribapena

Etxe honetan XX. mendearen hasierako udaldiko bizitokien irudirako hurbilketa bat ikusten da bolumen zatikatuak bilatze horretan; horretarako, baina, estalki jokia erabiltzen dute, ez hainbeste oinplanoa, hau nabarmen errektangularrak baita. Isurkien malda handia nabarmentzen da, eta beheko bi solairuetatik bereizten diren azken bi mailetan ohiko neotudor bilbaduraren marrazkia dauka. Horiexek villa honen alderdirik esanguratsuenak, bereziki kopete-erdi erako estalkia mendebaldeko horma pikoa itxuratuz oinplanotik ateratzen den bolumenetako batean. Teilatua brotxalean sostengatutako lau petral nagusitan oinarritzen da, bisera irtenari eustearren; bisera horrek babestu egiten du horma pikoko leihoa, zurezko bilbadura aizun batek bildua. Peto ertzeko habea hegal handieneko goiko bi mentsuletan dago oinarrituta.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: jatorrizko proiektuari erantsitako atalak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: fatxadetako erliebe emokatu guztiak. Teilatu-hegalak bere habe eta zuburuekin.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
- 4.- Nahitazko lehengoratzak: ez.